

GESTIOKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIA (KIROLETAKO TEKNIKARIA) lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesuaren barruan, euskararen Hizkuntz Eskakizunak egiaztatze probak

Aipatutako lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesuetarako deialdiaren 6.3. oinarrian zehaztutakoarekin bat eginik, oposizio-fasea gainditu duten lehiakideei jakinarazten zaie euskara-proba idatziak (ulermen idatzia eta adierazpen idatzia) **2017ko otsailaren 17an** egingo direla, jarraian aipatzen den lekuan:

[Donostiako seminarioa](#)

Heriz pasealekua, 82
20008 Donostia

Probak egun eta ordu hauetan egingo dira:

2. hizkuntza-eskakizuna **09:00etan**

3. hizkuntza-eskakizuna **09:00etan**

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatze probak oposizio-fasea gainditutakoek soilik egin ahalko dituzte baldin eta hizkuntza-eskakizuna aurretik egiaztatuta ez badute edo titulu baliokiderik ez badute.

Examina kanporagarria izango da, hau da, ahozko examina egitera, idatzizko examina gaindituko luketen izangaiei beste inori ez zaiola dei egingo, behar bezala iragarriko den datan.

Kontuan izan, deialdiko 6.3 oinarriak dioenaren arabera, oposizio-fasea gainditu eta hizkuntz eskakizuna edo baliokidea egiaztatze agiria dutenek honen kopia aurkezteko aukera izango dutela, euskara-probako idatzizko ariketa egiteko eguna iritsi arte, berau ere barne (**2017ko otsailaren 17** arte).

Hizkuntz eskakizunari buruzko informazio gehiago: http://www.ivap.euskadi.net/r61-perfiles/es/contenidos/informacion/hizkuntza_eskakizunak_webberria/es_hizk_esk/hautaketa_pz_ozesuak.html

AZPkoen HAUTAKETA ETA HORNIKUNTZA
PERTSONALEKO GERENTEORDETZA - UPV/EHU